

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Otsaila / 274 Zenbakia



SUSTAPEN EKONOMIKO ETA IRAUNKORRARI BURUZKO JARDUNALDIAREN AURKEZPENA GETXO 2020 ARLO ESTRATEGIKOAK

Otsailaren 2an Sustapen Ekonomiko eta Iraunkorrari buruzko Jardunaldiaren aurkezpen instituzionala egin da Getxoko Elkartegian. Bertan parte hartu dute Imanol Landak, Getxoko alkateak, eta José Antonio Garridok, Bilbao Metropoli-30 elkartearen presidentek. Jardunaldiaren helburua da udalerrian estrategikotzat jo diren alorretan ekimen ekonomikoak

garatzen eta dinamizatzen lagunduko duten proposamen zehatzetan aurrera egitea. Horretarako, esperientziak eztabaidatu eta elkartrukatuko dira parte-hartzaileekin. Horrela, alde batetik, arlo horietan profesionalizatzeko esperientzia praktikoei, eta, bestetik, Getxon bertan proiektu bat egiteko beharrei ekingo diete.

Bilbao Metropoli-30 eta Labayru Fundazioa Bilboko Euskararen Aholku Batzordean ari dira lanean; batzordearen idazkaritza estrategikoa eta teknikoa dira, hurrenez hurren.

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea (EAB)

Bilboko Udaleko Hezkuntza eta Euskara Sailak Bilboko Euskararen Aholku Batzordea (EAB) jarri zuen abian 2016an. Ekimenak Bilbao Metropoli-30 elkartearen eta Labayru Fundazioaren laguntza du; batzordearen idazkaritza estrategikoa eta teknikoa dira, hurrenez hurren.



EAB Bilbon euskara sustatzeko eta normalizatzeko aholku- eta informazio-organoa da. Haren helburua Euskara Sustatzeko Ekintza Planean bildutako proiektuak eta ekintzak gauzatzea da, eta, hortaz, Bilboko eguneroko bizitzako alor guztietan euskararen normalizazio eta erabilera sustatzea.

2016an, EABren Batzordeak zenbait azpibatzerde sortzea erabaki zuen, interesa duten alor jakin batzuk dinamizatzeko: euskaltegiak, komunikabideak eta euskalgintza. Haien arteko lehen batzarrak 2017ko egun hauetan egin ziren:

- Euskaltegiak: urtarrilaren 17an - euskararen irakaskuntzarako eta sentsibilizaziorako eragileak.

- Komunikabideak: urtarrilaren 19an - komunikazio eta informazio arloko funtsezko eragileak eta euskararen erabilerearen sentsibilizaziorako gaitasun handia dutenak.

- Euskal Elkarteak: urtarrilaren 27an - euskararen sentsibilizaziorako eta erabilerearako eragileak.



[Bilbao Metropolitarraren Lurralde Estrategiari buruzko foroa \(Lurralde Bizia\)](#)

Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala metropoli-eremuko lurralde-estrategia ezartzeko legez aurreikusitako dokumentua da. Bertan planteatzen dira, besteak beste, bizitegi- eta industria-guneetako esku-hartze nagusiak, azpiegitura nagusien kokalekua eta egokitasuna, etorkizunean okupatu litezkeen lurzoru-eremuak, naturaguneen babesa, mugikortasun-

estrategiak eta hondatutako gunee-
tako esku-hartzeak.

Guztira, 35 udalerrri arautzen ditu
planak: Abanto Zierbena, Alonsote-
gi, Arrankudiaga, Arrigorriaga,
Barakaldo, Barrika, Basauri,
Berango, Bilbo, Derio, Erandio,
Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gorliz,
Larrabetzu, Leioa, Lemoiz, Leza-
ma, Loiu, Muskiz, Ortuella, Plen-
tzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao,
Sondika, Sopela, Trapagaran,
Ugao-Miraballes, Urduliz, Zamu-
dio, Zaratamo, Zeberio, Zierbena.

Hamar urte igaro dira 2006an Bil-
bao Metropolitarraren lehen Lurralde
Plan Partziala (LPP) onartu
zenetik. Azken hamarkadan gertatu
diren aldaketek, egoera sozioeko-
nomiko berriek eta eremuan garatu
diren plan zein proiektuek agerian
uzten dute Lurralde Planaren era-
berritzearen beharra. Hori dela eta,
Bizkaiko Foru Aldundia Bilbao

Metropolitarraren Lurralde Plan
Partzialaren Berrikuspena bultza-
tzen ari da, parte-hartze publikoko
prozesu baten bitartez.

Bilbao Metropolitarraren Lurralde
Plan Partzialaren berrikuspenaren
harira, batzarrak egiten ari dira, eta
Bilbao Metropoli-30 modu aktiboan
parte hartzen ari da.

[CIDEUren iberiar sarearen batza-
rra](#)

"Mugikortasuna eta bizikidetz
hirietan" izan da CIDEUren (Centro
Iberoamericano de Desarrollo
Estratégico Urbano) iberiar sarea-
ren batzarraren gaia. Batzarra urta-
rrilaren 30ean eta 31n egin da Bar-
tzelonan, eta Ebrópolisek
–azpisare horren koordinatzailea-
eta Bartzelonako plan estrategiko-
ak antolatu dute.

Bilbao Metropoli-30 elkarte sarea-

**Garraioak, Mugi-
kortasuna eta
Lurraldearen
Kohesioa Sustatze-
ko Sailak Bilbao
Metropolitarraren
Lurralde Plan Pa-
rtzialaren berriku-
spenari buruz egin-
dako kontsultan
parte hartzen ari
da elkarteak.**



LURRALDE BIZIA
Garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
Departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

¡VEN Y PARTICIPA!
ZATOZ ETA PARTE HARTU!

Bilbo Metropolitarraren
Lurralde Estrategiari buruzko
FORO TEMATIKOA

FORO TEMÁTICO
sobre la Estrategia Territorial de
Bilbao Metropolitano

Bilbao Metropoli-
tarra Birbizteko
Elkartea urtarrila-
ren 30ean eta
31n Bartzelonan
egin den CIDEU-
ren iberiar sare-
ren batzarrera
gonbidatu dute.



ren batzar horretara gonbidatu dute. Bertan, parte-hartzaileek post Habitat III hiri-agendari buruzko hausnarketak egin dituzte; gainera, hirietako mugikortasun berriarekin eta bizikidetzarekin lotutako hainbat hiriren proiektuak ezagutu dituzte.

[Mazatláneko ordezkaritza \(Sinaloa, Mexiko\)](#)

Urtarrilaren 23an, elkartearen zuzendari nagusiak Mexikoko Mazatlán hiriko ordezkaritza hartu zuen. Bilbao metropolitarrak biziberritzeko prozesuan duten interesagatik etorri dira Mexikotik. Mazatlánnek hirigintza-proiektu handia jarri du abian azalera berdea eta aisiako ekipamendu publikoak handitzeko. Horretarako, ideia nagusia museo bat eta akuario bat egitea da.

[Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluaren osoko bilkura](#)

Immigrazio Gaietarako Bilboko Udalaren Kontseilua sortu da immigranteen antolatzeko eta solasera-

ko gaitasuna bultzatzeko, herritarren partaidetzarako ekintzak garatzeko eta politika publikoak formulatzeko proposamenak eta ekimenak sustatzeko. Helburu hauek ere baditu: kultura aniztasunarekiko errespetua eta elkartasuna sustatzea; etorkinen eta horien elkarten partaidetza soziala eta politikoa indartzea; kulturen arteko trukeak egiteko eta kulturen zabal-kundea egiteko espazio bat sortzea; bilbotarren sentsibilizazioa sustatzea eta administrazioak, herritarrek eta etorkinek erantzukizuna hartzea immigranteen integrazio-prozesuan. Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkartearen kontseilu horren idazkaritza tekniko da.

Horren harira, urtarrilaren 30ean Kontseiluaren osoko bilkura egin zen, eta, besteak beste, honako gai hauek eztabaidatu ziren: Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseilua-



ren 2016ko jardueren memoria, talde eragilearen 2017rako lan-egitasmoa eta aurrekontu-proposamena onartzea, eta Immigrazio Gaie-tarako Bilboko Kontseiluaren egungo osaera berrikustea.

Sustapen ekonomiko eta iraunkorrari buruzko jardunaldia. Getxo 2020 Arlo Estrategikoak

Otsailaren 2an Sustapen Ekonomiko eta Iraunkorrari buruzko Jardunaldiaren aurkezpen instituzionala egin da Getxoko Elkartegian. Bertan parte hartu dute Imanol Landak, Getxoko alkateak, eta José Antonio Garridok, Bilbao Metropoli-30 elkartearen presidentek. Jardunaldia otsailaren 2tik 15era izango da, eta honela antolatuta egongo da:

- Otsailak 2. Getxo, espezializazio adimenduna: "sustapen ekonomiko eta iraunkorraren aldeko apustua".
- Otsailak 7. Getxo IKS: "industria kultural eta sortzaileen aldeko apustua".
- Otsailak 9. Getxo, BS: "berrikuntza sozialaren aldeko apustua".
- Otsailak 14. Getxo KOTI: "kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industrien aldeko apustua".
- Otsailak 15. Getxok turismoaren

aldeko apustua egiten du: "EGK2 Getxoko etorkizun gastronomikoa prestatzen".



OTSAILAREN 2TIK 15RA
SUSTAPEN EKONOMIKO ETA IRAUNKORRARI BURUZKO JARDUNALDIAK
 GETXO 2020 ARLO ESTRATEGIKOAK

SUSTAPEN EKONOMIKO ETA IRAUNKORRARI BURUZKO JARDUNALDIAK
 JORNADAS DE PROMOCIÓN ECONOMICA SOSTENIBLE

OTSAILA 2: Getxo, espezializazio adimentsua: Sustapen ekonomiko eta iraunkorraren aldeko apustua.
OTSAILA 7: Getxo, IKS: Industria kultural eta sortzaileen aldeko apustua.
OTSAILA 9: Getxo, BS: Berrikuntza sozialaren aldeko apustua.
OTSAILA 14: Getxo, KOTI: Kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industrien aldeko apustua.
OTSAILA 15: Getxok turismoaren aldeko apustua egiten du: EGK² Getxoko etorkizun gastronomikoa koinatzen. (Tamarises Izarra jatetxea)

EGUNERO:
Esperientzia praktikokoak: Esparru estrategikoetan adituak.
Talerrak: Eta zuk, zer behar duzu zure proiektua Getxon garatzeko?.

Tokia: Getxo Elkartegia. Ogoño 1. Areea, Getxo.
 Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara

www.getxo.eus/getxolan

Antolatzailea: **Getxo PRO** (Fundazioa) / **Getxo** (Elkartegia) / **Fundazioa** (Jainko Beasain Zabala) / **Laguntza teknikoa:** **Getxo** (Elkartegia)

Urtarrilaren 16an eta 23an, Bilbao Metropoli-30 elkar-teak Zuzenbideko prestakuntza eta enpresen segurtasuna izeneko II. ikastaroa antolatu du, Legal Consultants eta Fun4shopperekin batera, Elkarte lantzen ari den profesionaltasunaren balioaren testuinguruan.

Uniporten Hausnarketa Estrategikoa

Uniport portu erkidegoak hausnarketa- eta planifikazio-prozesu estrategikoa jarri du abian, Bilboko portuarentzat lagungarriak diren funtzioak hobetzeko.

Bilbao Metropoli-30 elkarte Uniporten bazkide sortzailea eta zuzendaritza-batzordearen kidea denez, esperientzian oinarrituta

barne aldizkaria



Bilbao Metropoli-30 elkarteak, esperientzian oinarritut, ekarpenak egiten dizkie Uniporten hausnarketa- eta planifikazio-prozesuei, eta Bilbao metropolitarraren ikuspegi osoa ematen du.

egiten dizkie ekarpenak prozesu estrategikoei, eta Bilbao metropolitarraren ikuspegi osoa ematen du.



BiDCko Kontseilua

Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkarteak Bilbao Bizkaia Design Council-eko (BiDC) kontseiluaren otsailaren 9ko bileran hartuko du parte. Bilera hori BiDCk kontseiluki-deei ekartzen dien balioari eta etorkizunean izan dezakeen / izan beharko lukeen zereginari buruzko hausnarketaren zati bat da. Helburua honako hau da:

- Bizkaiko industria sortzaileen egungo egoerari buruzko ikuspuntua partekatzea.

- BiDC balioestea zuen ikuspuntu eta itxaropenetatik.

- Etorkizunean BiDCren ezaugarriak izan beharko liratekeen elementuen inguruan hausnartzea.

World Café lan-dinamika irekia eta partizipatiboa prestatu da.

BiDC 2013an jarri zen abian, eta bertoko arlo ekonomikoaren, kulturalaren eta akademikoaren 32 erakunde garrantzitsuk osatutako kontseilu batek eta sektore sortzaileetako 200 enpresatik gorako foro batek zuzentzen dute. Gailu eramangarrietara egokituta dago, eta sare sozialetako jarduera biltzen du.



governuko bazkide eta organoak

Elkartearen webguneberria

Elkarteak webgunea berritu du, eta honako hau da helbide berria:

www.bm30.eus. Webgune berriaren diseinua argiagoa eta intuitibagoa da.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Google y la NASA buscan a los emprendedores más disruptivos. Estrategia Empresarial, 01-02-2017.

- Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoberri, 26-01-2017.

- Getxo analiza sus sectores clave en la economía. Deia, 25-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del "Singularity University Global Impact Challenge". Europa Press, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del "Singularity University Global Impact Challenge". La Vanguardia, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del "Singularity University Global Impact Challenge". Europa Press, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del "Singularity University Global Impact Challenge". eldiarionorte.es, 12-01-2017.

- "Sois los nuevos faros de la ciu-

dad". El Correo, 15-12-2016.

- Los que dan lustre a Bilbao. Deia, 15-12-2016.

- Aburto condecora a los cinco Ilustres de Bilbao de este año. El Nervión, 15-12-2016.

- Los nuevos Ilustres de Bilbao. ElCorreo.com, 15-12-2016.

- Aburto entrega las distinciones a los cinco nuevos "Ilustres de Bilbao 2016". Europa Press, 14-12-2016.

- La 'B' de Bilbao tiene cinco nuevos embajadores. El Correo, 02-12-2016.

- Iribar hace doblote y también recibirá el premio Ilustre de Bilbao. Deia, 02-12-2016.

- Los nuevos Ilustres de Bilbao. El Nervión, 02-12-2016.

- Jose Angel Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, Jose Antonio Garrido y Begoña Rueda, Ilustres de Bilbao 2016. Bilbao Actual, 01-12-2016.- Jose Angel Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, Jose Antonio Garrido y Begoña Rueda, nuevos Ilustres de Bilbao 2016. Eldiario.es, 01-12-2016.



www.bm30.es/prensa

URTARRILAK 10

ITK. Batzorde Eragilearen bilera.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

URTARRILAK 12

Europako datuen araudi berriari buruzko jardunaldia.
VE Interactive Bilbao.

URTARRILAK 13

Kanpoko Sustapena 2017.
San Mamés.

URTARRILAK 16

Zuzenbide eta enpresen segurtasun alorreko II. prestakuntza-saioa.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

URTARRILAK 17

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea.
Bilboko Udala.

URTARRILAK 19

Singularity University Global Impact Challenge.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea.
Bilboko Udala.

URTARRILAK 20

Uniporten Zuzendaritza Batzordea. Uniport. Uniport.

URTARRILAK 23

Zuzenbide eta enpresen segurtasun alorreko II. prestakuntza-saioa.
Bilbao Metropoli-30 elkarte

Mazatlaneko (Sinaloa) ordezkariak.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

URTARRILAK 24

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Estrategiari buruzko Foro Tematikoa. La Bolsa Eraikina.

URTARRILAK 27

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea.
Bilboko Udala.

URTARRILAK 30-31

CIDEuren Sare Iberiarra.
Bartzelona.

URTARRILAK 30

Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluaren osoko bilkura.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

OTSAILAK 1

Irteera profesionalen tailerra.
Elkargoen Egoitzak.

OTSAILAK 2

"Getxo 2020 arlo estrategikoak. Sustapen Ekonomiko eta Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 7

Getxo IKS: "industria kultural eta sortzaileen aldeko apustua"..Getxo Elkartegia.

Uniporten Hausnarketa Estrategikoa. Arrupe Etxea.

OTSAILAK 7-9

Talde-laneko tailerra.
UD/ UPV-EHU.

OTSAILAK 8

SKILLS programa. Etika eta Balioen tailerra.
Elkargoen Egoitzak.

OTSAILAK 9

Getxo, BS: "berrikuntza sozialaren aldeko apustua".
Getxo Elkartegia.

BiDCKo Kontseilua.
BEAZ.

OTSAILAK 14

Getxo KOTI: "kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industriaren aldeko apustua".
Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 15

Getxok turismoaren aldeko apustua egiten du: "EGK2 Getxoko etorkizun gastronomikoa prestatzen".
Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 22-23

SKILLS programa. Marka pertsonaleko tailerra.
UPV-EHU/UD.

OTSAILAK 28

SKILLS programa. Autoezagutzako eta Adimen Emozionaleko tailerra.
UD/MU.

MARTXOAK 7

SKILLS programa. Aurrez aurreko tailerra jardunean dauden profesionalekin.
Elkargoen Egoitzak.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkarte
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA